



Udal aldizkaria

2017ko urria. 7. alea

Lege-gordailua: DL NA 2406-2015

AURKIBIDEA

JAIK 2

UDALA 3

ERREPIDEA 4

HONDAKINAK 5

TURISMOA 6

LANA 7

MOTX-MOTXEAN 8

HURRENGO HITZORDUAK 8

“Iberoko obrak geldituta daude enpresak kiebra egin duelako” / 6

GARBIGUNEA GOIZUETAN

Garbigunea jarriko da San Antongo depuradoraren ondoan / 5



Goizuetako Udala



IZASTA STA IZATGA

2017-KO FIESTETAKO AURREKONTUA

Ekitaldia	Prezioa	Ekitaldia	Prezioa
Umeen eguneko zezenak eta poniak	500€	"Mugi zaitetz" ikuskizuna	385€
Espuma festa	188,76€	"Gabezin" berbena taldea	1.200€
"Plaza irrintzika" emanaldia	583€	"Zopilotes Txirriaos" kontzertua	2.250€ * 2.000€ tabernariak ordaindua
"Laiotz" berbena taldea	1.700€	Ortzadar fanfarrea	800€
Herriko erraldoi eta buruhandiak	350€	Zezenak	4.996,84€
Igandea txaranga	6.100€		
Igandea txarangaren otorduak	1.524,6€	<i>Gastu fijoak</i>	
Beste musikoen otorduak	532€	- Pertsonala	1.448,09€
Dultzaineroak	200€	- Programa	970,98€
Pilotariak	1.480€	- Publizitatea	667,46€
Bertsolariak	1.000€	- Autobus zerbitzua	412,5€
DJ Mikeltxi	626€	- Argi indarra	396,5€
Haurrentzat puzgarriak	1.200€	- Komonak (Alquibalat)	1.733,16€
"México en el Corazón" rantxerak	475€	- SGAE	325,09€
Bakailao lehiaketa	176,33€	Besterik (itxaferoak, konfetiak, plataforma, lkastola...)	1.351,53€
			GUZTIRA 31.572,84€

BASAUNTZ EHIZA ELKARTEA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Basauntz ehiza brozatzera eta egindakoa 2.000€rekin. elkarteak eta Goizuetako mantentzera konprometitzen dira alde biak. Udalak 2021 bitarteko lan-kidetza-hitzarmena sinatu beste, 2018an Bordute mendi-pisten konponketa eta mantenimendua sustatzeko. Urtez urte pistak konpontzera, des-

2.000€rekin. Mendi-pisten mantentzea guztiona dela pentsatzen dute sinatzai-leek eta auzotar zein mendiaren erabiltzaileen laguntza eskatuko da lanak egiterakoan.

METROKO PLANO BATEAN GOIZUETAKO BASERRIEN MAPA

Iñaki Etxeberriak egindako mapa eskatu dio Udalak erabilgarria delakoan.

Iñaki Etxeberriak Goizuetako baserrien mapa egin du, hiri handi bateko metroaren plano ardatz hartuta herriko baserrien izena eta kokapena zehaztuz. Inguruko beste herrietako planoetatik jaso du ideia Etxeberriak.

Mapa egiteko baserrien izenak biltzen hasi zen, berak zekizkienekin eta aitaren laguntzaz, baserri eta bordak non kokatuta dauden ere bildu ditu mapan. Hori bai eroriak dauden bordak ez dira mapan jaso.

Mapak modu eskematiko eta argian baserri bakoitza non dagoen zehazten du. Goizuetako auzo eta baserriak ezagutzen ez dituenarentzat erabilgarria da, baina baita larrialdi zerbitzuentzako ere: medikuak, suhiltzaileak, foruzaingoa... Erabilgarria izango delakoan Udalak mapa eskatu dio eta lan honen osagarri, baserrietako bide-gurutzeetan seinaleak jarriko ditu Udalak datozen hila-beteetan.



Iñakik egindako maparen irudia.



Bete, moztu eta sartu udaletxeko buzoian azaroak 5 baino lehen.

INKESTA

Zer iruditu zaizkizu aurtengo jaiak? Baloratu 1etik (oso txarrak) 10era (oso onak).

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Zer aldatuko zenuke? _____

Zer da herritik kanpo beste jairen batean ikusi duzuna, gustatu, eta Goizuetan ikusi nahiko zenukeena? Egin proposamen zehatza; ekitaldiaren izena, non eta noiz ikusia den.

BI KURBA HOBETU DITUZTE NA-4150 ERREPIDEAN

Abuztuan hartu zuen Nafarroako Gobernuak konpromisoa eta behala ekin zion errepidea hobetzeari.

2016ean zuzendu zen Udala Nafar Gobernura errepideko kurbak kentzeko eskariarekin. Kurba hauek arriskutsuak ez zirela iritzita, obrarik ez zela egingo erantzun zen. 2017ko abuztuan Obra Publikoetako Zuzendaritzarekin berriro elkartu ondoren kurbak kentzea erabaki zuen Nafar Gobernuak.

Hilabete eskasera, obra egin da. Bi kurba hobetu dira, Iskibi kanpinekoa eta Urraideko Lepokoa. Horretaz gain, zulo batzuk ere konpondu dituzte eta baita kunetak egin ere.

Asko ez bada ere, ikusita Goizuetako errepidea nolakoa den, aurrerapauso bat izan da. Batez ere, kontutan hartuta, Goizueta eta Aranoarrak egunero gabiltzala batera eta bestera, lanera, ikastera edota eskolara. Beraz, ezinbesteko lana.

Udalaren borondatea Nafarroako Gobernuarekin harremanetan jarraitzea da aurrera begira NA-4150 errepidean hobekuntzak egiten jarrai dezaten.



Urraideko Lepoko kurba zabaldu ondoren.

BURUGORRIKO PISTA MOLDATUA

Diruz lagundua izan den obra da moldatu den mendiko pista.



Frantzesan gurutzetik Arriurdiñetarako bidea.

2016-2017 baso kanpainarako Nafarroako Gobernuak atera zituen diru-laguntzetara Burugorriko pistaren konponketa lanak aurkeztea erabaki zuen Udalak. Batez ere ikusita, inguru horretatik atera behar zen egurra dagoeneko aterata zegoela eta beraz, pistak ez zuela hainbeste gehiago sufrituko.

Dirulaguntzaren barruan Udalaren proiektua onartuta, lizitazio prozesua martxan jarri zen eta adjudikatarioa Transamalur Mendeberrria Aldi Baterako Enpresa Elkartea izan

zen. Lanak egiten abuztuaren 28an hasi zen eta urriak 5ean obra bukatutzat eman zen. Obraren balioa 69.108,06€ izan da eta Nafarroako Gobernuak 31.027,755€ko dirulaguntza eman du. Horretaz gain, lizitazio prozesuan beste pista batzuetan hobekuntzak egitera ere konprometitu zen enpresa eta horiek ere eginak daude. Berritu dena Frantzesan gurutzeraino doan Burugorriko pista eta Frantzesan gurutzetik Arriurdiñetara (kantera) doan bidea izan dira; guztira 19,5km.

GARBIGUNEA JARRIKO DA SAN ANTONEN

GARBIGUNEA jarriko da San Antongo depuradoraren ondoan

Nafarroako Gobernuaren 2017-2019 Toki Azpiegitura Planaren barruan Mendialdea Mankomunitateak eskualdean garbiguneak martxan jartzeko proiektua aurkeztu zuen. Garbigune hauetako bat Goizuetan kokatuko litzateke, hain zuzen ere, San Anton parajearen dagoen depuradora instalazioen barruan. Garbigunearen helburua sortzen diren ondakin desberdinak jasotzeko leku bat izatea da. Hondakin mota hauek dira bertan bilduko liratezkeenak: boluminosoak, obra txikiak eta RAE-ak (elektrogailu txikiak).

Egingo den obra izango da, lurra egokitu,

kontenedore batzuk jarri eta itxitura bat egin. Sarre-
ra ere egokituko da. Obra
aurrez aipatutako diru-laguntzatik ordainduko litzateke eta iristen ez denaz, Hondakinaren Kontsortzioa arduratuko litzateke. Men-



dialdea eta Udalaren artean lurzattia doainik erabiltzeko zesioa sinatu da. Hondakin klase bat jaso-

tzeko zailtasunak zirela eta arazo horri aurre egitea da helburua gertuko zerbitzu eraginkor bat emanez. Goizuetako garbiguneak Arano eta Goizuetako herritarrei emango die zerbitzua. Traperos-ek emango duen zerbitzuak berdin jarraituko du martxan etxetara joanez. Traperos iristen ez den lekura iristea da garbigunearen interesa.

Ondorengo hilabeteetan egingo da lizitazioa obra hauek adjudikatu eta aurrera eramateko. Edozein kasutan, 2017an hasiko direnak. Jarraian, garbigune hauen kudeaketa nola egingo den lantzen hasiko gara.

ESKONBROAK HONDAKINEN TRATAMENDURA



EsKonbroa Goiko-Iturriko deposituan botata.

Ikusita hemendik aurrera obra handietako eskonbroa herrian kudeatzeko modurik ez dugula izango, obra bat egiteko baimena eskatzen duenari obra horretan sortutako hondakinak tratamendu plantara eraman izana ziurtatu beharko du. Obra baimenarekin batera, ziurtagiri hau ere eskatzen hasiko da Udala.

Hondakinaren tratamendua obra bateko aurrekontu guztietan jaso beharreko partida da eta kontabilizatzen dena. Beraz, hasiera batean, ez luke promotorarentzat gastu erantsirik suposatuko.

IBEROKO OBRAK GELDITUTA



Obra egiteko lanen ardura zuen Zubillaga enpresak kiebra egin duela eta, Iberoko dorrearen zaharberritze lanak geldituta daude.

Nafarroako Gobernuak Iberoko dorrearen berritze lana aurrera eramatea erabaki zuen. Uda hasieran, obra hauekin hasi ziren. Dorrean ura bideratzeko lanak egin ziren, eta denbora gutxira, obrak ez du aurrera jarraitu lanak egiteko adjudikatua izan zen Zubillaga enpresak kiebra jo duelako. Ondorioz, lanak geldituta daude.



Nafarroako Gobernuak obra aurrera eramateko borondatearekin jarraitzen du. Baina momentu honetan Zubillagarekin harremana moztu eta gaia likidatzen ari da. Beraz, hau bukatuta, berriro ere, lizitazio prozesua martxan jarri beharko du obra beste enpresa bati esleitzeko. Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera, 2018rako geldituko litzateke dorrea berritzeko obra.

Nafarroako Gobernuak, Leitzako Udala eta Goizuetako Udalaren artean hitzarmena sinatuko da.



Nafarroako Gobernuak, Leitzako Udala eta Goizuetako Udala lankidetzan hitzarmena sinatzekotan dira. Hitzarmenaren arabera, Gobernuak, datozen lau urteetan zubia ere berritzera konprometituko litzateke eta Leitzako Udala eta Goizuetako Udala elkarrekin beste lan batzuk aurrera eramateko konprometitzen dira.

Goizuetako Udalak proiektu honetan parte izatera garrantzitsu ikusten du nahiz eta obra hauek ez izan Goizuetako udalerrian (Iberoko dorrea Leitzako terrenoan kokatzen da). Iberok Goizuetako herriarekin duen gertutasuna ikusita, hor egingo diren inbertsioen onuradun Goizuetako herria izango da. Izan ere, Goizuetako turismoaren elementu garrantzitsu bat izatea aurreikusten da Iberoko dorrea eta ingurua, eta baita Goizuetako eta Leitzako herritarrentzat altxor handia ere. Gainera, Ibero, Goizuetako beste erreklamoekin ere oso ongi lotzen da. Adibidez, Artikutzarekin, egurra eta mendiaren esplotazioa eta errekarrekin. Hain zuzen ere, Goizuetaren izaeraren parte diren elementuekin.



“GOIZUETAN LAN ETA BIZI”

Nondik sortu da “Goizuetan lan eta bizi” dinamika?

Etxebizitza Batzordeak sortu zuen etxebizitza eta lokalei buruzko inkestan, etxebizitza gaia lantzeaz gain, “Nola hobetu Goizuetan bizileku bezala?” gaia ere lantzen zen. Atal honek, bereziki, lau alorren inguruan proposamenak egiteko aukera ematen zien herritarrei: lana, errepidea, etxebizitza eta zerbitzuak. Emaitzetan batez ere herrian lan falta zegoela azpimarratzen zen. Udalak, gabezi honi erantzuna emateko asmoz, herritarrei erraztasunak eman nahi dizkie beraien negozio propioak sortzera animatzeko eta horri hasiera emateko, zer hobeto beste esperientzietatik ikastea baino?

Zer da “Goizuetan lan eta bizi” dinamika?

Goizuetako Udala eta Cederna-Garalur-ek elkarlanean sortu duten dinamika da “Goizuetan lan eta bizi”. Urte osoan zehar noizean behin egingo diren hitzaldi eta mahai inguru saio ezberdinek osatzen dute dinamika hau eta helburua, beste esperientzia batzuetatik ikastea izango da. Beste leku batzuetan sortu dituzten negozio, dinamika, enpresa, kooperatiba, lanketa, proiektu... ezberdinak ekarriko ditugu herrira, beraiek kontatzen digutenetik ikasi, ideia hartu eta guk gureak herrian martxan jartzeko.

Noiz dugu lehenengo zita?

Lehenengo zita azaroaren 7an izango dugu, asteartea, arratsaldeko 6:30etan udaletxeko ganbaran. Hitzaldi honetara bi esperientzia desberdin ekarriko ditugu. Bata, herrikoa bertakoa izango da, “Maingenea” arrautza eta betizu-haragi ekologikoa. Bestea, Basaburuako “Ernaitzu kooperatiba” izango da. Biek ere beraien esperientziak kontatuko dituzte: zer negozio dute, nola hartu zuten negozioa martxan jartzeko erabakia, zergatik, nola izan den prozesua, zein den enpresaren ibilbidea, nola ikusten dute herri txikien etorkizuna...



Azaroak 7, asteartea, 18:30

Udaletxeko Ganbaran

BI ESPERIENTZIA EZAGUTU ETA IKASTEKO

Juanjo Elizalde Usarraga.

“Maingenea” arrautzak eta betizu haragi ekologikoa.

Ernaitzu koop.

Apeztegiherria denda, Orokietako ostatua. Escape Room. Basaburuak.

MOTX-MOTXEAN

AZARO KULTURALA

Herriko Kultur Taldeari esker, aurten ere ekitaldiz betea dator azaroa. Ikuskizun eta beste emanaldi guztien berri izan nahi baduzu, sartu www.goizueta.eus webgunean. Bide batez, aipatu, hainbat arrazoi medio, Xalto Sarike-ta berriz ez antolatzea erabaki duela Nafarroako Bertsozale Elkarteak. 1992an antolatu zen lehenbizikoz Xalto Sarike-ta eta hamairu edizio jokatu dira ordutik.



ERREKA GARBIKETA

Irailaren 30ean auzolanean erreka garbiketa egin zen. Hainbat bolondres Olatxo inguruan eta Ikatzolako parajeetan zaborra ateratzen aritu ziren; guztira, 8m³ zabor (1500kg inguru). Udaletik, jendearen kontzientziario falta salatu nahi dugu eta aurrera begira, auzolanean jarraitzeko beharra azpimarratu. Baina bakoitzak bere inguruan hasi behar du kontzientziatzen, "gaur zaintzen ez duguna, bihar ezingo baitugu erabili".



TDT SEINALEA

Herriko telebista arazoak direla eta, udalak TDTaren ikerketa bat egiteko eskatu zuen. Eraitzen arabera, ez da arazorik aurreikusten. Baina kate batzuk gaizki jarraitzen dute. Udalak, Nasertic enpresari bigarren ikerketa bat eskatu dio. Hala ere, arazok jarraitzen badute, Nafarroako Gobernuak zerbitzu teknikora deitu behar da: 848 42 55 55. Udaletxean ere kexa-idatzi bat egin daiteke.



MIRIAM BUELTAN

Hiru hilabetez soldatarik gabeko baimenarekin egon ondoren, lanera bueltan da berriro Miriam Arozena udal idazkaria. Bere ordezkari egon den Miren Ortizek urriaren 4an izan zuen bere azken lan eguna eta geroztik, martxan da berriro Miriam.



HURRENGO HITZORDUAK

2017-10-31 19:00. BATZAR OROKORRA. Batzar aretoa.

2017-11 AZARO KULTURALA. Goizueta.

2017-11-07 18:30. "GOIZUETAN LAN ETA BIZI" HITZALDIA (1.saioa). Udaletxeko ganbara.

2017-11-25 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA EZABATZEKO EGUNA. Goizueta.

2017-11-28 19:00. BATZAR OROKORRA. Batzar aretoa.

2017-12-03 NAFARROAREN ETA EUSKARAREN EGUNA. Goizueta.